

BAT ALDIZKARIAREN BILAKAERAZ

Imanol Esnaola

BAT aldizkariaren koordinatzaile izana
Helbide elektronikoa: gaindegia@gaindegia.org

BAT aldizkariaren bilakaerari erreparatzen hasita, aldizkariaren koordinazio eta sustapenean ibili naizen aldetik burura datorkidan lehen gaia egitasmo honen finantzazioari lotuta dator. Hots, BAT aldizkariari 20 urtean aldatu ez zaion gauza bakarretakoa bere finantzazio eskema da. Euskarazko aldizkari espezialdu bat editatzeko jaso du instituzioen laguntza ekonomikoa, eta ez, ordea, bere proiektu edo asmoa garatzeko. Horrek nabarmen bideratu du bere bilakaera.

Beste era batera esanda, euskarak duen normalizazio beharraren inguruan, gatazkak gatazka, adostasun formal zabal ezagutu dugun arren, normalkuntza horretan lagunduko duen gogoeta eta ezagumen-dua sustatzeko proiektua izanagatik, BAT-ek ez du laguntza iraunkorrik aurkitu bere proiektu komunikatiboa garai berrietara egokitu eta garatzen jarraitzeko. Eta beraz, hesola horiekin zedarritutako bide estuan egin behar izan du bere bilakaera.

1991an BAT aldizkariak 20 urte betetzea gutxi espero zuen. Zorionez, BAT aldizkariaren ardura hartu duten pertsoneri esker, zailtasunak eraginkortasunez gaindituz eta egoera berrietara zuhurtziaz egokituta, bide emankorra egitea lortu du.

Aldizkaria ingurumari oso gatazkatsuan sortu zela esan gabe ez dago ulertzerik bere bilakaera. Giro politiko liskartsuan glotopolitika administrazioari bakarrik ala administrazioari eta eragile sozialei zegokien eztabaidagai zegoen abiatu zen garaian. Frankismoan inongo gobernuren babesik gabe autoerakuntzaz gorpuztu zen euskararen mugimendu sozialak bizirik eta sasoitsu jarraitzen zuen. Entitate eta pertsonen osatutako eremu zabal eta askotarikoa izaki bazuen gogoetak gurutzatu eta esperientziak trukatzeko premia. Eta batez ere hizkuntza politikan parte hartzekoa. Abiatu berri ziren Administrazio autonomikoek, ordea, ez zioten zilegitasunik aitortzen eskuhartze horri, berdin Iparraldean, Nafarroa Garaian zein EAE-ko tokiko intituzioetan. Glotopolitikan eragin nahi izatea, beraz, liskarraren erdian paratzea zen. Horrek hainbat urtetan ez dio BAT-i lagundu bere inguruan nahi izango lituzkeen guztiak biltzen, nahiz eta urte hauetan bere orrietan idatzi dutenen zerrendari erreparatzen bazaio, zinez, txalotzekoa den irakurleari eskaini dion iritzia eta ikuspegi aberastasuna.

Ikastolak, Helduen Euskalduntze Alfabetatzea, euskarazko prentsa, euskararen aldeko kolektibo hainbat, intelektual sarea... euskararen aldeko sare soziala askotarikoa eta eragin handikoa zen. Multzo hau, halaber, hedatzen joan da 20 urte hauetan. Institutuzio eta enpresetako euskara teknikariak, trebatzaileak, herrietako euskara eta aisialdi elkarteak, soziolinguistika aplikatua diharduten ikertzaile eta enpresak, alderdi eta sindikatuetako euskara arduradunak, profesional euskaltzaleak... BAT aldizkariaren xede taldea ere gero eta zabalagoa bilakatu da. Ugaritu egin dira, halaber, esperientziak nahiz euskararen errealitateaz gogoeta egin, ikertu edo sustapen ekintzak burutzen dituztenen ekarpenak eta premiak.

Euskarazko argitalpen espezialdu eta dibulгатiboen eztanda bizi izan dugu urte hauetan (ELE, Zutabe, Hik Hasi, Uztaro, Elhuyar, Bertsolari...). BAT aldizkariaren eremua errespetatuz lehiakide zuzenik sortu ez bazaio ere, BAT-en berezko irakurlegoari errealitatea ezagutu eta jarraitu ahal izateko erreferentziak gehitzearekin hautatu beharra etorri zaio. Hots, zer irakurri behar du irakasle euskaltzale batek? Euskararen egoeraren inguruko pertzepzio subjektiboa oro har lasaitzen joan den neurrian, BAT aldizkariak dakartzan lanaren gaineko espektatiba lasaitzen joan da eta argitalpen sektorialekin leku garrantzitsua hartu dute.

Teknologiak, bestalde, hedapen bizkorra (elektronikoa) eta maiztasun handiko ekoizpenak (komunikatzeko formatu berriak) ekarri ditu euskaltzaleon ohituretara. Euskalgintzaren berrikuntzarako grina "genetikoak" horretan murgiltzera eramanez dituzten arestian aipatutako giza taldeak. Geure buruari teknologikoki gero eta gehiago eskatu diogu. Nola eutsi, ordea, ingurumari horretan BAT bezalako aldizkari bati? Artikulu hau idazten duenak ondo gogoan du Eusko Jaurlaritzako HPS-k aldizkariaren hedapen elektronikoa sustatzeko egin zuen proposamenak BAT aldizkariaren eta oro har euskarazko argitalpenen eremuan izan zuten

1991an BAT aldizkariak 20 urte betetzea gutxi espero zuen. Zorionez, BAT aldizkariaren ardura hartu duten pertsonen esker, zailtasunak eraginkortasunez gaindituz eta egoera berrietara zuhurtziaz egokituta, bide emankorra egitea lortu du.

Aldizkaria ingurumari oso gatazkatsuan sortu zela esan gabe ez dago ulertzerik bere bilakaera. Giro politiko liskartsuan glotopolitika administrazioari bakarrik ala administrazioari eta eragile sozialei zegokien eztabaidagai zegoen abiatu zen garaian.

*BAT aldizkariaren xede
taldea ere gero eta
zabalagoa bilakatu da.
Ugaritu egin dira, halaber,
esperientziak nahiz
euskararen errealitateaz
gogoeta egin, ikertu edo
sustapen ekintzak
burutzen dituztenen
ekarpenak eta premiak.
Euskarazko argitalpen
espezialdu eta
dibulгатiboen eztanda
bizi izan dugu urte
hauetan.*

harrera hotza (2001-2002). Funtsean arazo ekonomikoa zen, hau da, formatu elektronikoaren alde egiteak edizio gastuen zati handiena murrizten zuen, baina horrek era berean beste arazo handiago batzuk zekartzan, ez baitzegoen egitasmo komunikatiboak babesteko proiekturik, edizioa babesteko baizik. Hau da, argitalpenari emandako laguntza produktu baten gutxieneko ekoizpenari lotuta zegoen (urtean lau zenbaki eta 1.000 ale bakoitzeko). Bestalde, irakurlegoa oraindik ohitu gabe zegoen formatu elektronikoan jardutera. Beraz, ukaezina da Jaurlaritzak proposatu zuen urratsa bide onean zihoala, baina honelako argitalpenentzat inolako bermerik gabe eta baldintza ekonomiko kaskarretan. Horra zergatik hasi dudan artikulua hau aldizkariaren finantzazioari aipamen eginez. BAT-en bilakaera bestelakoa izan zitekeen honelako produktuen sustapen publikoak urrats teknologikoa behar bezala egiteko baliabideak eskaini izan balitu.

Euskalgintzaren errealitate organizatiboak izan duen bilakaera ere aipatu beharra dago. Euskal Kulturaren Batzarra-ren inguruan (EKB) biltzen ziren euskalgintzako entitate nagusiak eta berau zen BAT editatzeari ekin ziona. EKB desagertu eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua sortu zenean (1996), ordea, umezurtz gelditu zen bat. Euskararen Gizarte erakundeek ez zuten BAT-en sustapenean ardurarik nahi eta proiektua bertan behera uzteko prest agertu ziren. Garai hartako argitalpen batzordea osatzen zuten pertsonak, eta elementu hau azpimarratu nahi nuke, pertsonak, banakoak, izan ziren proiektuari eutsi beharra zegoela eta proiektuarentzat behar zen oinarria jarri zutenak. Txillardegi eta Xabier Isasik ekin zioten bakardadean lan horri. Une horretantxe bizi izan zuen bere unerik larriena aldizkariak. Baina, behar den bezala inoiz idazten bada, esan beharrekoa izango da euskalgintzakoa txingurri lana izan dela, eta ataka zail horretan ere, ederki kostata izan arren, taldetxo horrek lortu zuen argitalpen batzordea kide berriekin osatzea, proiektuarekin konprometitutako koordinatzaile bat topatzea, egoitza berria, diru-laguntza publikoak bermatzeko konfidantza hedatzea, irakurlegoari eustea... Ia hutsetik hasi zuen bidea BAT-ek. SEI elkarte (Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen izenekoa) babesle zuela, berariaz horretarako sortua. Ondoren Soziolinguistika klusterra etorri zen, SEI-ren garapenaren ondorioz.

Garai bakoitzean Zuzendariak (Txillardegi eta Maria-Jose Azurmen-di), koordinatzaileak, argitalpen batzordeko kideak berritzen joan dira, eta horrek berarekin ekarri du garapena. Ez nuke puntu honetan gehiegi luzatu nahi, uste baitut bakoitzak bere neurrian zuen onena eman zuela, baina uste dut BAT aldizkariaren “intra-historia” azpimarratzekoa dela arlo honetan, izan ere bere iraupen eta bilakaeraren gako nagusia bertan dago. Zorroztasun akademikoa, esperientzia aplikatua, militantzia eta zabaltasuna uztartzen asmatu dute aldizkariaren sustapenean lan egin dutenek. Denona eta inorena ez, txikia baina ezinbestekoa, hori da BAT

aldizkaria izan dena eta horretan ahalegindu dira, produktuan ikus daitekeenez, bertara bildutakoak. 1996an esku bateko hatzak aski ziren aldizkariaren iraupenarekin konprometitutako pertsonak zenbatzeko, egun, ordea, BAT desagertuko balitz bat berria sortu beharko litzateke euskalgintzak bere eremu desberdinetatik dakarrenari bide emateko.

Ingurumaria aldatu bada, BAT bera ere aldatzen joan da, ez behar bada nahi izan den moduan, bai, ordea, ahal izan den neurrian. Formatu aldetik aldaketa bistakoa da, baina aldaketa nagusia edukietan dago. Sustatzaileak aldatu zaizkion neurrian, BAT-en egitekoaren ikuspegia egokitzten joan da. EKB-ren garaia amaitzearekin “iritzia sortu” edo “jarrera eragiteko” hedabideetan horren ohikoa den elementua galdu zuen, egiteko hori egileen esku utziaz. Glotopolitika arloko lanak edo gogoeta mailakoak ere gutxitzen joan dira. Horren ordez, izaera aplikatua duten esperientzien gaineko informazioa eta analisisa nagusitu dira.

Aldaketa honen atzean garaiarekin batera datorren aldaketa dago. Glotopolitikaren inguruko gatazkak gero eta zailagoa bihurtu du gogoeta maila honetan jardutea, bestalde glotopolitika arloko kritikak eta proposamenak plazaratzeko euskalgintza hainbat entitatek eguneroko hedabideetara jo dute, ezen ez, hedapen urri eta maiztasun txikiko argitalpenetara. Beraz, eremu honetan gertatutako protagonista eta estrategia aldaketak berebiziko eragina izan du BAT-en.

Aldi berean beste bi prozesurekin batera gertatu da esandakoa, batetik esperientzia aplikatuetan edo eremu akademikoan ekarpen berriak egiten hasitako belaunaldi berrien agertzearekin eta bestetik BAT-en jarraitzaileen artean belaunaldi aldaketa batekin. BAT-ek errealitate berri eta konplexu bati erantzun behar izan dio urte hauetan. Batetik zer argitaratu? Bestetik norentzat argitaratu? Finantzazio eskemak ezarritako mugak kontuan hartuz, galdera horiei eman ahal zitzaizen erantzuna mugatua izan arren, bilakaera ezinbestekoa izan zaio, protagonista berriei eta euren gaiei bide eman, bestetik irakurleko berriaren interesei erantzun produktua aldatu gabe.

BAT-ek asmatu du bere inguru organizatibo eta sozialean gertatutako aldaketei modu eraginkorrean erantzuten, gai eta ikuspegi berriei atea zabalduz, bai bere argitalpen batzordean, bai irakurleei eskuetara eramandako edukietan.

Ez nuke, ordea, lan hau amaitu nahi, proiektuaren koordinatzaile eta bultzatzaile izan naizen aldetik, BAT-entzat beharrezkotzat ikusitako eta gauzatu ezinik utzitako aldaketa batzuk aipatu gabe. Besteak beste, aldizkaritzat ikusi ordez komunikazio egitasmotzat ikustea, horrela garai bateko produktua (aldizkaria) bi produktutara egokituz. Bat, gogoetara eta azterlan jasoetara bideratutakoa; bestea, esperientzia aplikatuetara bideratutakoa. Lehenak maiztasun txikiagoa eta argitalpen espezializatuen formatua izango luke, besteak, berriz, maiztasun handiagoa eta formatu dibulgatiboa. Bi produktu eta bi formatu, paperean eta interneten.

Teknologiak, bestalde, hedapen bizkorra (elektronikoa) eta maiztasun handiko ekoizpenak (komunikatzeko formatu berriak) ekarri ditu euskaltzaleon ohituretara.

Euskalgintzaren errealitate organizatiboak izan duen bilakaera ere aipatu beharra dago. EKB desagertu eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortu zenean, umezurtz gelditu zen

*Ia hutsetik hasi zuen
bidea BAT-ek. SEI
elkartea (Euskal
Soziolinguistika
Institutua Sortzen
izenekoa) babesle zuela,
berariaz horretarako
sortua. Ondoren
Soziolinguistika klusterra
etorri zen, SEI-ren
garapenaren ondorioz.*

*Ez nuke, ordea, lan hau
amaitu nahi, BAT-entzat
beharrezkotzat ikusitako
eta gauzatu ezinik
utzitako aldaketa batzuk
aipatu gabe. Besteak
beste, aldizkaritzat ikusi
ordez komunikazio
egitasmotzat ikustea,
horrela garai bateko
produktua (aldizkaria) bi
produktutara egokituz.
Bat, gogoetara eta
azterlan jasoetara
bideratutakoa; bestea,
esperientzia
aplikatuetara
bideratutakoa.*

Gogoetan ari direnentzat zein proiektu zehatzetan dihardutenentzat iri-tzi eta informazio trukerako gune elektroniko bat beharko luke. Horrekin batera irakurleen kaptaziorako kanpainak egiteko, lan talde sendoagoa ordaintzeko edo jendaurreko ekitaldiak antolatzeko baliabideak beharko lituzke. Ez dirudi bizi ditugun garaiak horretarako aukera handirik uzten dutenik, garai oparoagoetan ere ezinezkoa izan baitzen, baina euskarare-na baldin bada hizkuntza gutxituen artean garapen ekonomiko eta juri-diko handieneko lurraldea, horretara iritsi beharko genuke.■